

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Dimako Udala**

Dimako Udaleko aguazilearen plaza baterako karrerako funtzionarioa hornitzeko deialdiko oinarriak.

Lehenengoa. — Deialdiaren helburua

Deialdi honen xedea da eranskinetan jasotzen diren eta bertan adierazten diren hautaketa-prozeduren bidez, plantillako plazen karrerako funtzionarioak hornitzea.

Bigarrena. — Hautaketa-sistema

Oposizio-lehiaketa.

Hirugarrena. — Hautagaien betekizunak

Hautaketa-prozesuan parte hartzeko ezinbestekoa da:

a) Europar Batasuneko herrialderen bateko nazionalitatea izatea edo nazioartean sinatutako eta Europar Batasunak eta Espainiako estatuak berretsitako langileen zirkulazio-askearekin lotuta sinatutako beste edozeinen arabera, Europako Komunitatea Eratzeko Tratatuak ezartzen dituen baldintzen arabera. Europar Batasuneko kide diren estatuetak nazionalen ezkontideek (baldin eta zuzenbidez bananduta ez badaude) eta haien ondorengoek eta ezkontidearenak (baldin eta ezkontideak zuzenbidez bananduta ez badaude) ere hartu ahal izango dute parte 21 urte baino gutxiago badituzte edo, adin hori baino gehiago izan arren, haien kontura bizi badira. (5/2015 ELDko 57. artikulua):

b) Zereginak egiteko gaitasun funtzionala edukitzea.

c) 16 urte edo gehiago izatea, eta derrigorrezko gehieneko erretiro-adina gainditu barik izatea.

d) Edozein herri-administrazioaren zerbitzuetatik edota autonomia- erkidegoetako konstituzio- edo estatutu-organoetatik diziplinaespediente bidez baztertua ez egotea edota ebazpen judizial bidez desgaitasun absolutu edo berezirik ez izatea lanpostu edo kargu publikoetarako, funtzionario-kidego edo -eskalara sartzeko, edota lan- kontratua langile moduan egiten zuten eta baztertua edo desgaitua izan zen antzeko funtzioak burutzeko. Beste estatu bateko herritarra bada, desgaituta edo horren pareko egoera batean ez egotea, eta bere estatuan egoera berean egonda enplegu publikora iristeko eragozpen izango litzatekeen diziplinazko zehapenik edo horren parekorik ez izatea.

e) Eskatutako titulazioa izatea (5/2015 ELDko 76. artikulua). Titulu ofiziala edo homologatua edukitzea, edo hura eskuratzeko eskubideak ordainduta izatea. Atzerriko titulazioen kasuan, haren homologazioaren egiaztatzea dutela egiaztatzeko agiria eduki beharko dute.

Betekizun horiek guztiak eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean bertan eduki eta lanpostuaz jabetzen den unera arte mantendu beharko dira.

Laugarrena. — Eskabideak eta onarpena

Hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskabidean, hautagaien deialdiaren oinarrietan eskatzen diren baldintza guzti-guztiak betetzen dituztela adierazi beharko dute. Eskabideak behar den moduan bete eta udalburuari zuzendu eta Udaleko Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dira. Horretarako epea 20 egun naturalekoa izango da (SAOren gaineko 364/95 EDren 18. artikulua), deialdiko azken iragarkia Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita.

Izangaiek, eskabidearekin batera, merezimenduen zerrenda aurkeztuko dituzte.

Eskabideak aurkezteko epearen barruan adierazi ez diren merezimenduak ezin izango dira inola ere balioetsi, ezta Mahaikideak emandako epearen barruan adierazi baina geroago egiaztatzen direnak ere.



Ez da agiririk aurkeztu behar, izan ere, parte hartzeko eskakizunak zein merezimen-
duak Epaimahaiak eskatutakoan egiaztatu beharko dira.

Azterketen hizkuntza

Eskabidean hautaketa-probak zein hizkuntzatan egin nahi diren adierazi behar da:
euskara (batua) edo gaztelania. Ez bada ezer adierazten, proba guztiak euskeraz egin
nahi direla ulertuko da.

Hala ere, gaitasun psikologikoei buruzko probak diseinatu ziren hizkuntzan (euskaraz
edo gaztelaniaz) egingo dira.

Eskabideak, modu berean, 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legeko 16. artikulua,
Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa zehaztutako moduan
aurkeztu daitezke.

Lehiaketa-fasea egotekotan, oposizio-fasea gainditu dutenek merezimenduen egiaz-
tagiriak aurkeztu beharko dituzte Epaimahaiak ezarritako epean; agiriok, beti ere, hauta-
keta-prozesuan parte hartzeko eskabideak aurkezteko datari dagozkio. Ez dira kontuan
izango honako merezimenduak: adierazitako merituak ez direnak, ezta epe barruan es-
katu arren, epez kanpo egiaztatu direnak ere.

Eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, Alkatetza-Udalburutzak (364/95 SAOren
20. artikulua) hilabete bateko gehieneko epean onartuko du onartutako eta baztertutako
izangaien behinbehineko zerrenda. Ebazpen hori Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu
eta Udalbatzaren iragarki-oholean ikusgai egongo da.

Aipatutako zerrendetatik kanpo dauden hautagaiek 10 eguneko epea izango dute
bazterketa horren kontrako erreklamazioa aurkeztu eta dena delako akatsak edo agi-
riak zuzentzeko. Erreklamazioak aurkezteko epea amaitutakoan, izangaiak onartu eta
baztertzeo ebazpena ontzat eman duen agintaritzak ebatzi beharko ditu aurkeztutako
erreklamazioak.

Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 2015eko urriaren
1eko 39/2015 Legeko 68. artikulua xedatutakoa betez, eskabideetan akatsak baleude,
Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta Udaleko iragarki-oholean argitaratu beharreko iragar-
kiaren bidez, interesdunari akatsa 10 eguneko epean konpontzeko eskatuko zaio (onar-
tutako izangaien behin-behineko zerrendaazaltzen den datatik zenbatzen hasita). Hala
egingo ez balu, eskaera inolako izapidetze gehiagorik gabe artxibatuta geratuko dela
ohartaraziko zaio.

Bosgarrena. — Kalifikazio-epaimahaia

Deitutako hautaketa-prozesuetako kalifikazio-epaimahaiak Administrazioaren Zerbi-
tzupeko Langileak Sartzeko Araudi Orokorra onartzen duen 1995eko martxoaren 10eko
364/95 Errege Dekretuak (364/95 SAOren 11. artikulua), 1991ko ekainaren 7ko 896/91
Errege Dekretuko 4. artikulua eta Euskadiko Funtzio Publikoari buruzko 1989ko uztaila-
ren 6ko 6/89 Legeko 31. artikulua xedatutakoaren arabera eratu dira. Haren osaera
osoa Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da onartutako izangaien zerrendarekin
batera Alkatetza-Udalburutzak izendatu ostean.

Epaimahaiak deialdiak ezarritako presidente bat, idazkari bat eta mahaikideak izan-
go ditu. Auzitegiko kide kopuruak inola ere ezingo du izan bost baino gutxiagokoa izan.
Epaimahaia osatzen dutenak, batez ere, teknikariak izango dira eta bete behar den pla-
zara sartzeko eskatutako jakintza arlo bereko titulazioa edo espezializazioa izan beharko
du epaimahaiko kideen erdiak gutxienez.

Kide guztiek, edonola ere, deitutako plazetara sartzeko titulazio edo maila akademiko
berdina edo handiagoa izan beharko dute. Epaimahaiak aholkulariak gehitu ahal izango
ditu hautaketa-prozesuko proba guztiak edo batzuk egin ahal izateko. Haien jarduera be-
ren espezialitate teknikoetara mugatuko da Euskadiko Funtzio Publikoaren 6/89 Legeko
31.3 artikulua xedatutakoa betez; hitzarekin, baina botorik gabe jardungo dute.

Epaimahaiko kideek ezingo dute esku hartu. Horrekin lotuta, udalburuari jakinarazi
beharko diote Sektore Publikoko Erregimen Juridikoari buruzko 2015eko urriaren 1eko



40/2015 Legeko 23. Artikuluan aurrez ikusitako gorabeheraren bat gertatzen denean. Era berean, aurreko artikuluan aurrez ikusitako kasuaren bat gertatzen denean, izan-gaiek ezetsi egin ahal izango dituzte Sektore Publikoko Erregimen Juridikoari buruzko 2015eko urriaren 1eko 40/2015 Legeko 24. artikulua ezartzen duen moduan.

Epaimahaia, gainera, titularrez gain, haien ordezkoei osatuko da. Horiek epaimahaiko idazkarirako eta haren mahaikideetarako izendatu beharko dira; ezin izango da kargua eskuordetu eta epaimahaia ezin izango da eratu eta ezin izango du jardun, gutxienez, epaimahaiburua eta idazkaria, edo horien ordezkoiak, eta bere kideetarik erdiak gutxienez bertaratzen ez direnean. Idazkari legez jardun behar duena ez da horretarako zenbatuko.

Epaimahaikide guztiek edukiko dituzte hitza eta botoa, idazkariak izan ezik; idazkariak ez du botorik izango. Bertaratutako botoen gehiengoz hartuko dira epaimahaiaren erabakiak eta, berdinketa gertatuz gero, epaimahaiburuaren botoak erabakiko du.

Edonola ere, euskararen ezagutza aztertzeke proban, epaimahaiko kideak helburu horretarako balioa bakarrik izango du, aurkakoa espresuki ezartzen denean izan ezik.

Epaimahaiak ahalmena izango du zalantzak ebazteko eta oinarri hauetan aurrez ikusi gabe dagoen guztian, hautaketa-prozesuak ordena eta garapen ona izan ditzan beharrezko akordioak adosteko.

Honako hauek ezin izango dute hautaketa organoetako kideak izan: aukeraketa edo izendapen politikoko beharginak, bitarteko funtzionarioak eta aldi baterako beharginak. Bertako kide izatea beti izango da norberaren arabera; ezingo da ordezkari moduan edo inoren kontura egin. Emakume eta gizonen arteko parekotasunerantz joko da. (5/2015 ELDko 60. artikulua).

Seigarrena. — Hautaketa-prozedura

Izangaien hautaketa dagozkion eranskinetan hautaketa-prozesu bakoitzerako ezarritako sistemaren bidez egingo da.

Lehiaketa-oposizio sistemaren bidez egiten diren hautaketaprobetan, lehiaketa-fasea o ez da baztertzaila izango eta ezingo da kontuan hartu oposizio-faseko probak gainditzeko Toki Administrazioen funtzionarioen aukeraketa-prozesuak arautzen dituen 1991ko ekainaren 7ko 896/91 Errege Dekretuaren 4.c) artikuluan ezarritakoaren arabera. Epaimahaiak oposizioaren lehenengo ariketa egiteko data jakinaraziko du.

Oposizio hautaprobak egin eta gero, lehiaketa-fasea hasiko da. Hori bukatutakoan, Epaimahaia batzartuko da, Epaimahaiburuak deituta.

Epaimahaiak merezimentuak ebaluatuko ditu, eta jakitera emango dira lehiaketaren puntuak. Hala ere, atzerriko hizkuntzen jakintza-mailarekin lotutako merezimentuak kontrolatu behar izanez gero, deialdia egingo zaie hautagai batzuei edo guztiei, egokitzat jotzen den egiaztapen-proba egiteko.

Azken kasu horretan, lehiaketa faseko puntuazioaren argitalpena egiaztatuko da egiaztapen-froga egin eta hiru eguneko epean.

Oposizio librearen kasuan, lehen ariketaren tokia eta hura asteko data Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira hautaketa-prozesuko onartutako eta baztertutako zerrenda onartzen duen ebazpenarekin batera. Oposizioaren ariketa bakoitza amaitu eta hurrengo hasten den bitartean, gutxienez 72 orduko epea eta gehienez 45 egun naturalekoa egon beharko da hurrengo oinarrian xedatutakoa betetzen denean izan ezik (364/95 SAOren 17. artikulua).

Zazpigarrena. — Oposizio-fasearen hasiera

Oposizio-faseko lehenengo ariketa egiteko lekua, eguna eta ordua Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta udaletxeko webgunean eta iragarki-oholean argitaratuko dira, hautaketa-prozesurako onartu eta baztertu direnen behin betiko zerrenda onartzen duen ebazpenarekin batera.

Izangaien jarduteko ordena Administrazio Publikorako Estatuko Idazkaritzak egindako zozketa bidez zehaztuko da 364/95 Errege Dekretuko 17. artikulua xedatutakoa be-



tez. Oposiziogileak deialdi bakarrean deituko dituzte ariketa bakoitzerako eta, deitutako unean, oposiziogile bat ariketa horietakoren batera ez agertzeak ariketa horretan eta hurrengoetan parte hartzeko duen eskubidea bertan behera uztea ekarriko du modu automatikoan. Ondorioz, hautaketa- prozesutik baztertuta geratuko da behar bezala justifikatutako eta epaimahaiak modu librean balioetsitako kasuetan izan ezik.

Epaimahaiak egokitzat jotzen dituen ariketak saio bakarrean egitea erabaki dezake, eta oposiziogileek ariketak irakurtzea erabaki ahal izango du. Hori jendaurrean egingo litzateke, epaimahaiak garaiz adierazitako egun eta orduetan.

Epaimahaiak oposizioko gainerako ariketak egiteko ondoz ondoko iragarkiak (SAO onartzen dituen 364/95 EDren 21. artikulua) aurreko probak egiteko erabili diren lokaletan, edo dagokionean, Udalbatzaren webgunean eta iragarki-oholean, argitaratuko ditu. Hori guztia jakinaraziko zaie izangaiei. Iragarki horiek hurrengo ariketa egin baino gutxienez 24 ordu lehenago jakitera eman beharko dira.

Kalifikazio-epaimahaiak uneoro eskatu ahal izango die izangaiei behar bezala identifikatzeko. Horretarako, hautagaiak NAN agiria eraman beharko dute oposizio-ariketa guztietara, edo bestela, epaimahaiaren iritziz nortasuna behar den moduan egiaztatzen duen beste edozein agiri (pasaporte, gidabaimena, eta abar).

Prozeduraren edozein momentutan epaimahaiak hautagai batek deialdian eskatutako betekizunak ez dituela betetzen jakiten badu, izangaia baztertuko da, interesdunari entzunaldia eman ostean. Egun horretan bertan horren berri emango zaio hautaketa-prozesua deitu duen agintaritzari.

Zortzigarrena. — Hautaketa-prozesuaren kalifikazioa

Lehiaketako merezimenduen balorazioa oinarri hauei gehitutako eranskinetan azalduko merezimenduen baremoaren arabera bakoitzari egotzitako puntuen batura izango da.

Oposizioko ariketa bakoitzaren eta, dagokionean, lehiaketafasean ezarritako merezimendu bakoitzaren kalifikazioak, epaimahaiak kideek emandako puntuak batuta lortuko dira. Hurrengo eragiketa egin behar da: guztira lortutako puntuazioa zati epaimahaiakide kopurua; zatiketa horren zatidura hautagai bakoitzaren behin betiko kalifikazioa izango da.

Behin betiko sailkapenaren ordena oposizio-fasean lortutako puntuazioen (ariketa bakoitzaren puntuen batura) eta, dagokionean, lehiaketa-fasean lortutakoen (merezimendu bakoitzaren puntuen batura) baturak zehaztuko du.

Berdinketa badago, lehenengo eta behin, hurrenkeraren lehenengo postua oposizio-fasean puntu gehien lortu duenarentzat izango da; bigarren, Dimako Udalaren zerbitzuan denbora luzeena egin duenarentzat izango da; hirugarren, toki-administrazioaren zerbitzuan denbora luzeena egin duenarentzat; laugarren, gainerako administrazio publikoen zerbitzuan denbora luzeena egin duenarentzat.

Baldin eta trebakuntzaren ikuspegitik emakumeen eta gizonen artean gaitasun bera badago, emakumeei emango zaie lehentasuna administrazioaren dena delako kidego, eskala edo kategorian emakumeak %40 baino gutxiago direnean. Salbuespena egingo da lanposturako beste hautagaiak neurri hori ez aplikatzea justifikatzen duten ezaugarriak betetzen dituztenean, sexuagatiko diskriminazioa egon gabe; adibidez, laneratzeko eta enpleguan promozioa izateko arazo bereziak dituzten beste kolektibo batzuetako kideak direnean.

Ariketa bakoitzeko puntuazioak udaletxeko iragarki-taulan eta webgunean argitaratuko dira, epaimahaiak kalifikazioak adostu eta hurrengo 24 orduen barruan.

Bederatzigarrena. — Proba gainditu dutenen zerrenda, dokumentuen aurkezpena eta izendapenak

Hautaketa prozesua amaitzen denean, epaimahaiak udaletxeko webgunean eta iragarki-oholean argitaratuko du (364/95 SAOren 22. artikulua) onartutakoen zerrenda puntuazio-ordenaren arabera.



Interesdunek, argitalpen horretatik zenbatzen hasita, hamar egun balioduneko epea izango dute egokitzat jotako erreklamazioak egiteko.

Erreklamazioak egiteko epea iraungitzen denean eta dagokionean aurkeztutakoak ebatzitakoan, onartutakoan behin betiko zerrendak argitaratuko dira. Horren kopuruak ezingo du izan deitutako plazena baino handiagoa izan eta zerrenda udalburuari (7/85 Legeko 102. artikulua; gero 14/2000 Legeak aldatu zuen) bidaliko zaio izendapen-proposamena egin dezan. Horrez gain, Agintaritza horri bidaliko dio azken saioko akta. Bertan, puntuazio-ordenaren arabera, proba guztiak gainditu dituzten eta deitutako plaza kopurua gainditzen duten oposiziogile guztiak azalduko dira. Hori guztia kasu eskusibo honetarako egingo da: plaza lortu duen izangairen batek edo batzuek hori hartuko ez balu/te eta horren inguruko beste eskubiderik edo aurreikuspenik ez balego.

Hautaketa-prozesuaren ondorioz plazarik lortu ez duten eta gainditu dutenen zerrendak, horren inguruan ezarritakoaren arabera, udaletxean aldi baterako izaerarekin zerbitzuak eskaintzeko erabiltzen diren lan-poltsetan jasoko dira.

Kalifikazio-epaimahaien erabakiak lotesleak izango dira izendapena egiteko arduradun organoarentzat; hala eta guztiz ere, hori ez da eragozpena izango organo horrek kalifikazioak berrikusteko, indarrean dagoen 39/2015 Legea, 2015eko urriaren 1ekoa, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa.

Proposatutako oposiziogileek deialdiaren oinarrietan aukeraketa- prozesuan parte hartu ahal izateko eskatzen diren baldintzen egiaztagiria aurkeztu beharko dituzte 20 egun naturaleko epean (SAO 364/95 EDren 23. artikulua), onartuen zerrenda argitaratzen denetik zenbatzen hasita:

1. Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia konpultsatua edo dagokion erregistro zibila emandako jaiotza-agiria.
2. Kargu publikoak betetzeko gaitasun gabe ez dagoela eta, diziplina-espedientearen bidez, administrazio publikoaren zerbitzutik bananduta ez dagoela aitortzen duen agiria.
3. Herri Administrazioen zerbitzuko langileen bateraezintasunei buruzko 1984ko abenduaren 26ko 53/84 Legean ezarritako bateraezintasunik ez daukala adierazten duen aitortpena.
4. Dagozkion eginkizunak normaltasunez betetzea galarazten duen gaixotasunik edo muga fisiko edo psikikorik ez izatea. Udalak izendutako medikuek egiaztatuko dute horretarako, azterketa medikoa eta behar diren proba mediko guztiak egingo zaizkie.

Medikuen egiaztagiaren aurka eginez gero, hautagaiak onartu egingo du medikuen txostenak bidaltzeko oinarri izan direnak- erreklamazioa aztertuko duten organoen eskueran jartzea, hautagaiaren ohorerako eskubidea ukitzen dutenean izan ezik.

Minusbalotasunen bat duten hautagaiek, lanpostuaren berezko funtzioak burutzeko gaitasunaren ziurtagiria ere aurkeztu beharko dute (Bizkaiko Foru Aldundiko Minusbaliatuen Oinarrizko Zentroak edo zentro baliokideren batek egindakoa).

5. Euskadiko Funtzio Publikoaren gaineko 6/89 Legearen 43. artikulua eskatu eta oinarri hauen eranskinean lanpostu bakoitzerako zehazten den titulua edo haren fotokopia konpultsatua, edo hori lortzeko eskubideak ordaindu izanaren frogagiria.

6. Deialdian eskatutako gainerako baldintza espezifikokoak betetzen dituela justifikatzeko dokumentuak.

7. Bi argazki, NANerako argazkien neurrikoak.

Funtzionario publikoek ez dituzte agiri bidez egiaztatu beharko haien aurreko izendapena lortzeko egiaztatu beharreko baldintzak eta betekizunak. Hori beharrean, dagokien Ministerioaren, toki-erakundearen edo erakunde publikoaren ziurtagiria aurkeztu beharko dute, egoera hori eta zerbitzu-orrian azaltzen diren gainerako gorabehera guztiak zehaztuta.

Ezinbesteko kasuetan izan ezik, proposatutako oposiziogileek agiriak aurkezten ez badituzte edo eskatutako betekizunak betetzen ez badituzte adierazitako epearen barruan, ezin izango dira izendatu eta haien jarduera guztiak baliogabetuko dira, eskabi-



dean aukeraketa-prozesuan parte hartzea eskatzean eragin zezakeen faltsutasunetik ondorioztatutako erantzukizunak albo batera utzi gabe. Kasu horretan, Udalbatzako buruak izendapen-proposamena egingo du oposizioko ariketak gainditu dituzten eta aipatutako balio gabetzearen ondorioz deitutako lanpostu kopuruaren barnean sartu daitezkeen hautagaien alde.

Aipatutako agiriak aurkezteko epea igarota, izangaiak izendatuko dira. (364/95 SAO-ren 25. artikulua).

Alkateak, udaleko organo eskudunak, proposamena onartuta (896/91 EDren 7. artikulua), izendatutako oposiziotegileek 30 eguneko epea izango dute lanpostuaz jabetzeko, izendapena jakinarazi eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita (1952/05/30 Toki Administrazioako Funtzionarioen Araudiaren 35. artikulua). Adierazitako epean, justifikatutako arrazoirik gabe, karguaz jabetzen ez direnak kargutik kanpo geratuko dira; kasu horretan, karguari uko egin diotela ulertuko da eta eskubide guztiak galduko dituzte.

Izendapenak interesdunei jakinarazi eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta udaletxeko iragarki-oholean argitaratuko dira.

Hamargarrena. — *Praktiken aldia edo proba-aldia*

Izangaiak praktiken aldia gainditu beharko du.

Plazarako proposatutako izangaia praktiketara dagoen funtzionario edo praktiketako langile izendatuko da eta egoera horretan egongo da 12 hilabetez.

Praktiketarako aldia amaitu aurretik, Alkateak eta idazkaritzak langilearen funtzioen betekizunei buruzko ebaluazio-txostena igorriko dute. Bertan, alderdi hauekin lotuta erakutsitako gaitasunak hartuko dira kontuan: gaitasuna eta lanaren kalitatea, errendimendu profesionala, erakundearen zentzua, erantzukizuna eta eragingarritasuna, lankideekiko harremanak eta lankidetzak, prestutasuna eta ekimena, lanarekiko interesa, lan-taldeko integrazioa eta kanpoko harremanekin lotutako interesa eta zuzentasuna.

Helburu horietarako, Udalbatzak ezarriko du txosten horiek igortzeko balorazio modua edo sistema.

Txosten horren emaitzak izangaiaren aldekoak ez balira, kalifikazio-epaimahaiak zereginaren ebaluazio-txostenak baloratuko ditu bere ustez izangaiek praktiken aldia gainditu badute eta, kasu horretan, hala aitortuko balu. Bestela, karrerako funtzionario izendatzeko eskubide guztiak galduko lituzke.

Emaitzak ez direla onak izan baieztatuko balitz, alkateak plaza hutsik uztea erabaki edo oposizioko aurreko ariketak gainditu dituen hurrengo izangaiaren aldeko izendapen-proposamena egiteko eskatuko lioke epaimahaiari.

Hamaikagarrena. — *Aldi baterako lan poltsa*

Oposizio aldia gainditu dutenen zerrenda antzeko edo postu berdineko beharrak betetzeko erabiliko da.

Prozesuan lortutako puntuaren arabera eratuko da lan poltsa. Lan poltsa hori irizpide izango da lehentasunak zehazteko.

Udalak zerrenda hori baliatuko du antzeko lanpostu bateko eginkizunak betetzeko ordezko bat behar duenean aldi baterako, hau da, lanpostu hori betetzen duena gaixorik, oporretan edo beste lizentzia edo baimenen batekin dagoenean edo lanak pilatzen direnean.

Hamabigarrena. — *Gorabeherak*

Interesdunek deialdia, oinarriak eta haietatik eta epaimahaiaren jardueratik ondoriozta daitezkeen administrazio-ekintza guztien kontra egin ahal izango dute urriaren 1eko 39/2015 Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko legean zehaztutako kasuetan eta bertan ezarritako moduan.

Oinarrietan aurrez ikusi gabeko guztia honako hauek arautuko dute: Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuari buruzko 2015eko urriaren 30eko 5/2015 ELD (testu bategina), Estatuko Administrazioaren zerbitzurako langileen Sarrerari buruzko Araudi



Orokorra, 1995eko martxoaren 10eko 364/95 Errege Dekretuak onartu zuena, 1991ko ekainaren 7ko 896/91 Errege Dekretua, 1985eko apirilaren 2ko 7/85 Legea, Tokiko Erregimeneko Oinarriak arautzen dituenak, 1986ko apirilaren 18ko 781/86 Legegintzako Errege Dekretua, 1989ko uztailaren 6ko 6/89 Legea, Euskadiko Funtzioari buruzkoa, eta aplikagarriak diren gainerako xedapenak.

Epaimahaiak baimena dauka sortutako zalantzak argitzeko, bai eta hautaketa-prozedura behar den moduan garatzeko beharrezko erabakiak hartzeko ere. Deialdi hau eta haren oinarriak osorik argitaratuko dira Bizkaiko Aldizkari Ofizialean. Gainera, haren laburpen zehaztua Estatuko Aldizkari Ofizialean ere argitaratuko da eta hautaketa-probak deitu direneko eskalaren, azpieskalaren eta klasearen izendapena, deitu duen udalbatza plaza mota eta kopurua, deialdia argitaratu deneko Bizkaiko Aldizkari Ofizialaren data eta zenbakia eta iragarkia baliabide horren bidez argitaratuko dela dioen oharra zehaztuko dira. Iragarkiak jasoko ditu onartutako izangaien behin-behineko zerrenda, epaimahaiko kideen izendapen zehatza eta hautaketa-prozesuko lehen ariketa egiteko toki eta data.

1986ko otsailaren 10eko 352/86 Errege Dekretuaren 5.1. artikuluan eta Euskadiko Funtzio Publikoaren gaineko 1989ko uztailaren 6ko 6/89 Legearen zazpigarren xedapen gehigarrian ezarrita dagoenaren arabera, minusbaliotasunen bat daukan hautagairik egonez gero eta eskabidean hori ezarri badu, deialdi honetako probak egitean epaimahaiak denboraren edo bitartekoen aldetik egokitzat jotako moldaketak egiteko ahalmena dauka, egokitzapen horren ondorioz probaren edukia hutsaltzen ez bada eta proban eskatutako gaitasun maila gutxitzen ez bada. Aldi berean, probak gainerako izangaien baldintza beretan egingo direla ziurtatu behar da.

Hamahirugarrena. — Datuen babesa

a) Izangaiek oinarri hauetan jasotako hautaketa-prozesuetara aurkezteak esan nahi du baimena ematen dutela eskabidean ageri diren datu pertsonalak erabiltzeko (izen-abizenak, NAN eta ikasketak), aldizkari ofizialetan, iragarki tauletan, web gunean eta, oro har, hautaketa-prozesuaren emaitza partzialak edo behin betikoak jakinarazteko erabiltzen den edozein bideren bitartez argitaratzeko. Halaber, hautagaiek datuak erabiltzeko baimena ematen dute, HAEK edo erakunde eskudunak euskararen hizkuntza eskakizuna edo beste hizkuntzaren baten ezagutza maila egiaztatu dezan, eta, oro har, hautaketa-prozesuari dagozkion ariketak epaimahaiak, erakundeak, enpresak edo epaimahaiak agintzen dionak modu egokian prestatu eta burutzeko direla baieztatuz. Gainera, hautagaiek deialdian ezarritako bazterketa medikoen taulara egokitzen direla ziurtatzeko erabili ahal dira datu pertsonalak.

b) Hautaketa-prozesuak publizitate printzipioak araututa daude. Ondorioz, izangaiaren eskabiderik ez da onartuko baldin eta ez badu bere datuak lagatzea onesten aurreko paragrafoan adierazitako edukiaz eta helburuetarako.

c) Honako deialdiaren hautaketa-prozesuen ondorioz lan-poltsak eratzeari buruzko oinarriaren ondorioetarako, eskabidean hautagaiek adierazi behar dute euren datuak (izen-abizenak, NAN, helbidea, telefonoa eta ikasketak) herri administrazioko beste erakunde batzuei lagatzeko eragozpenen bat duten. Lagapen horren helburu bakarra da erakunde horiek lan eskaintzak legez ezarritako moduan egitea. Datuak lagatzea ez dutela nahi berariaz adierazi ezean, hautagaiek horretarako baimena ematen dutela ulertuko da.

d) Izangaiek emandako datuak «Hautaketa prozesuak» izeneko fitxategi batean sartuko dira eta horretaz Dimako Udalaren Idazkaritza Saila arduratuko da.

e) Interesdunek euren datuak ikusteko, zuzentzeko, baliogabetzeko eta aurka egiteko eskubidea izango dute; horretarako, idazkia bidali beharko dute helbide honetara: Dimako Udala Elexalde Kalea, 1, 48140-Dima.



1. ERANSKINA

ALGUAZIL LANPOSTUA**1. Deitutako lanpostuak**

Aguazil lanpostuetarako beharginak hautatzea, derrigorrezko 2 hizkuntza-eskakizunarekin, oposizio-lehiaketa bidezko sarrera libreko sistemaren bidez, LT taldea.

Taldea: Lanbide taldea, Azpi-eskala: mendekoa, Izena: udal aguazila UDALHITZeko 9. ordainsari maila, hiru-tekoak, aparteko ordainsariak eta ordainsari osagarriak dedikazio eskusiboa (lanordu luzatua) Josek baino.

2. Berariazko betekizunak

- Eskolaratze Egiatagiria edo baliokidea edukitzea edo hori lortzeko aukera edukitzea eskabideak aurkezteko epea amaitzen den datan.
- 2. hizkuntza-eskakizuna edo baliokidea egiaztatuta izatea eskabideak aurkezteko epea amaitzen den datan.
- Ibilgailu ofiziala gidatzeko gidabaimena izatea eskabideak aurkezteko epea amaitzen den datan.

3. Kalte-ordainak

Hautaketa-prozesua epaitzeko ardurak daukan epaimahaian parte hartzeagatikoak zerbitzuen ondoriozko kalte-ordainei buruzko Eusko Jaurlaritzaren zezeilaren 2ko 161/93 Dekretuan xedatutakoaren arabera arautuko dira; Dekretu hori abenduaren 19ko 267/2000 Dekretuak aldatu zuen.

4. Hautaketa-prozedura

Hautagaiak oposizio-lehiaketa bidezko sarrera libreko sistemaren bidez hautatuko dira.

Oposizio-fasea

LEHENENGO ARIKETA

Nahitaezkoa eta baztertzailerak hautagai guztientzat. Ariketa teorikoa.

Epaimahaia ezarritako gehieneko denboran, idatziz erantzun beharko zaio erantsitako gai-zerrendarekin lotuta dagoen galdera-sortari; galderak hiru aukeratzeko erantzun izango dituzte, bat bakarrik izango da balekoa. Baleko erantzun bakoitzak 0,50ko puntuazioa izango du eta ez-balekoak 0,25 puntu kenduko ditu. Ariketa honi 20 puntu emango zaie gehienez, eta, gainditzeko, gutxienez, 10 puntu lortu beharko dira.

BIGARREN ARIKETA

Nahitaezkoa eta baztertzailerak hautagai guztientzat.

Ariketa praktikoa aguazilaren eginkizunei buruzko administrazio agiri edo txostena idatzi beharko da; agiri hori euskaraz eta/edo erdaraz idatzi beharko da.

Ariketa honi 20 puntu emango zaie gehienez, eta, gainditzeko, gutxienez, 10 puntu lortu beharko dira.

HIRUGARREN ARIKETA

Erabiltzaile mailako informatika proba: Word, posta elektronikoa, internet eta antzerakoak. Ariketa honi 20 puntu emango zaie gehienez, eta, gainditzeko, gutxienez, 10 puntu lortu beharko dira.

LAUGARREN ARIKETA

Nahitaezkoa eta baztertzailerak hautagai guztientzat. Lanpostuaren profilari egokitze-proba:



Hautagaiak lanpostuaren profilari eta bete beharreko funtzioei nola egokitzen zaizkien ebaluatzeraz bideraturiko gaitasun eta nortasunari buruzko zenbait proba psikotekniko egitea izango da; elkarrizketa ere eta/edo talde-dinamika ere egongo da.

Ariketa honi 20 puntu emango zaie gehienez, eta, gainditzeko, gutxienez, 10 puntu lortu beharko dira.

Lehiaketa-fasea

Hautagaiak eskabideak aurkezteko epean behar legez alegatu eta egiaztatu duten merezimenduen azterketa eta balorazioa izango da, ondoko oinarriekin bat etorrira eta beste merezimendurik baloratuko ez dela: Deialdiaren argitalpen-datara arte lortutakoak bakarrik baloratuko dira.

Administrazio Publikoan aguazil edo udaltzain zereginak egiten emandako zerbitzuak:

- Aguazil zereginetan egindako zerbitzuak: 0,20 puntu hileko, gehienez ere 6 puntu.
- Udaltzain zereginetan egindako zerbitzuak: 0,15 puntu hileko, gehienez ere 4 puntu.

Administrazioan egindako lana egiaztatzeko: Lan egin den Administrazioak egindako agiria, bertan kontratuaren iraupena ere agertuko da. Ez dira kontuan izango eskabideak aurkezteko epeaz kanpo egindako lanak.

Ez dira kontuan izango eskabideak aurkezteko epeaz kanpo egindako lanak.

Zenbaketa egiterakoan, honako hau izango da irizpidea: urte osoa lan egin bada, 365 egun zenbatuko dira, eta hilabeteari dagokionez, berriz, 30 egun (beti ere lanaldi arruntean egin bada lan).

Lan egindako egun naturalak zenbatuko dira; ez dira aintzat hartuko hilabetea baino txikiagoa diren hondarrak. Hilabetea 30 egun naturaleko multzoa izango da.

Lanaldi partzialean zein murriztuan lan egin bada, behar egindako denborarekiko modu proportzionalean zenbatuko da, beti ere indarrean dagoen araudiari jarraituta.

Norberaren bizimodua, lan-arlokoa eta familiartekoa elkarri egokitzeke neurriak direla eta izan bada murrizketa, denboraren zenbaketa egiterakoan, lanaldi arruntean behar egin balitz bezala zenbatuko da.

Tituluak eta prestakuntza

- Batxiler-titulua, bigarren mailako lanbide-heziketa titulua edo baliokidea: puntu 1.
- Euskara: hirugarren hizkuntza-eskakizuna egiaztatzea: puntu 1.
- Informatika:

- IT Txartela Microsoft Word, oinarriko maila, egiaztatuta eukitzea: 0,5 puntu.
- IT Txartela Microsoft Word, maila aurreratua, egiaztatuta eukitzea, puntu 1.
- IT Txartela Microsoft Excel, oinarriko maila, egiaztatuta eukitzea, 0,5 puntu.
- IT Txartela Microsoft Excel, maila aurreratua, egiaztatuta eukitzea, puntu 1.

Oharra: Oinarriko maila + maila aurreratua egiaztatuz gero, 1,0 puntu emango dira.

- Babes Zibilarekin edo udaltzainen zereginekin erlazionatutako ikastaroak, jardunaldiak, mintegiak eta abar, zentro ofizialek, itunduek, akademiek edo INEM edo Lanbidek emandakoak eta honako gai hauei buruzkoak direnean:
 - a) Autobabesa.
 - b) Suteen prebentzioa eta itzalketa.
 - c) Ezbeharren jatorriaren ikerketa.
 - d) Laneko Arriskuen Prebentzioa.
 - e) Hiri erreskateak eta kaltetuen sorospena.
 - f) Ingurugiroa eta segurtasuna.
 - g) Lehen laguntzak eta sorospena.



- h) Zama arriskutsuen tratamendua, garraioa eta erabilera.
- i) Instalazioak eta mantentze-lanak.
- j) Eraikuntza patologia.
- k) Ibilgailuen mekanika.
- l) Berdintasuna.

0,5 puntu 40 orduetik gorako ikastaroak badira, eta 0,25 puntu 20 ordu eta 40 ordu bitartekoentzat 4 puntu, gehienez.

Lehiaketa fasean eskuratu daitezkeen puntuen guztizko batura ezin izango da 18 puntu baino gehiagokoa izan.

Kalifikazio-epaimahaia

Epaimahaiburua: Dimako Udaleko edo beste herri-administrazio batzuetako karrera-ko funtzionarioen artean izendatuko da.

Epaimahaikideak: Dimako Udaleko edo beste herri-administrazio batzuetako karrera-ko funtzionarioen artean izendatutako 4 epaimahaikide. EHAAK izendatutako epaimahaikidea euskara froga ebaluatzeko.

Idazkaria: udalbatzako idazkari-kontu-hartzailea edo horrek eskuordetutako funtzionarioa.

LANPOSTUAREN EZAUGARRIAK

Lanaldia, ordutegia eta egutegia: Lanaldia Dimako Udalak urtero ezartzen duena izango da, beti ere lanpostuaren izaera eta berriazko beharrianak kontuan hartuta, eta horren arabera erdibitua, goizekoa edo arratsaldekoa izan daiteke.

Funtzioak:

1. Udaletako agintariak babestea, eta udal eraikin eta egoitzak behatu eta zaintzea.
2. Herri-gunean trafikoa ordenatu, seinaleztatu eta zuzentzea, trafiko-arauetan ezarritakoaren arabera.
3. Polizia administratibo lanak ordenantza, bando eta bere eskumeneko alorreko bestelako udal xedapen eta ekitaldiei dagokienez, baita tokiko eskumenen.
4. alorrean ingurumen eta inguru-zaintzaren arloetan indarrean den araudia betetzen dela zaintzea ere.
5. Istripu, katastrofe edo hondamendi publiko kasuetan laguntza ematea, babes zibileko planen egikaritzan legeetan aurreikusitakoaren arabera parte hartuz.
6. Udal jakinarazpen eta komunikazioak banatzea, iragarkitaulen mantentzea eta udalak agindutako kartel eta dokumentu guztiak jartzea.
7. Mantentze-zerbitzuarekin elkarlanean aritzea, beharrak hala agintzen duenean.
8. Udalerrian ospatzen diren jai, kultur eta kirol ekitaldietan parte hartzea, hala agintzen bazaio.
9. Beharrezkoa balitz, kategoria bertsuko udal langileen ordezkapena egitea horien lanetan.
10. Erabilera eta jabego publikoko udal instalazio eta ondasunen kontrola.
11. Zerbitzu publikoen kontrola.
12. Euskal Herriko Poliziei buruzko 4/1992 Legean, uztailaren 17koa, ezarritakoaren arabera, dagozkion bestelako lanak.
 1. gaia. Udalerria. Udal-antolaketa. Eskumenak eta Funtzionamendua. Udalerria. Eskumenak, Derrigorrezko prestazio-zerbitzuak.
 2. gaia. Udal-funtzionarioen eskubide eta betebeharrak.
 3. gaia. Lege-antolaketan jakinarazpenen praktika.
 4. gaia. Udal-organoen funtzionamendu-erregimena. Deialdiak. Batzarrak egiteko saioen erregimena, bozketa eta akordioak adostea.



5. gaia. Espainiako 1978ko Konstituzioa. Egitura eta printzipio orokorrak.

6. gaia. Euskal Autonomia Estatutua. Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-antolakuntza. Lurralde Historikoei buruzko Legea.

7. gaia. Udalerria: kontzeptua eta elementuak. Udal-barrutia. Populazioa: erroldarekiko aipamen berezia.

8. gaia. Bide-segurtasunari buruzko araudia. Zirkulazioari buruzko legea: kontzeptua, egitura eta zabalera. Zirkulazio arloko administrazio-eskumenak.

9. gaia. Zirkulazio arloko portaera-arauak. Geltoki eta aparkalekuei buruzko aipamen berezia. Zirkulazioko mugak.

10. gaia. Salaketak eta txostenak Polizia-argiketak.

11. gaia. Dima udalerraren gaineko ezagutza: kokapena, historia, kale-izendegia, zerbitzuak, garraioak, instalazioak eta abar.

12. gaia. Dimako Herri ordenantzak, eta bereziki:

- Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga.
- Tokiko erabilera publikoa duten lursailak okupatzeagatik tasa, eraikitze material, obra-hondakin, hesi, eskora, asto, aldami, edukiontzi eta antzeko instalazioak jartzeko.
- Terrazak.
- Animaliak edukitzea eta horien babesa.
- Bide publikoan pintadak egitea eta kartelak eta pankartak ipintzea.
- Landa bideak erabiltzea.

Diman, 2017ko abenduaren 18an.—Alkatea, Nekane Intxaurtza Etxebarria